

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ika

ETXETIK PLAZARA

HAZIA, baratzeko BIZIA

SARIA:
LESAKAKO
BEKO
MINTEGIAN
60 EUROKO
EROSKETA

2020ko APIRILA

167. ALEA

IZENAK IZAN

Udaberrian murgilduta gaude, eta, dagoeneko, buru-belarri baratzeetan ari gara lanbide edo gustuko jarduera dugun guztiok. Nekazaritzaz eta, oro har, etorkizunaz kezkatuak gaudenok badakigu landareen hazien zaintzak zer garrantzi duen. Ale honetan, **Ruth Peña** Tenari, bertako nekazariari, elkarriketa egin diogu gure eskualdean honen inguruko hainbat hausnarketa eta gogoeta biltzeko asmotan.

Nor da Ruth?

Berrogei urteko emakume nekazari bat, euskaldun berria, jakinduria tradizioaletik ikasteko gogoia duena. Gaur egun, dakidan gehiena bertako zaharrendik jaso duena (txertoak nola eta noiz egin, ogia eta gasnak nola egin, baratzea nola antolatu: egutegiak, errotazioak...)



1. Nola ikusten duzu eskualdeko nekazaritzaren egoera.

Zer alde on eta txar azpimarratuko zenuke?

Nekazari guti gaude, poliki-poliki gazteak animatzen ari dira, baina ez da erraza. Bizimodu mota bat da, eta zaila suertatzen da gaur egungo erritmoarekin konbinatzea. Alde ona litzateke gero eta garrantzitsuago bihurtzen ari dela jendearendako; pixkanaka-pixkanaka, jendea konturatzen ari baita norberak ekoizten duenaren garrantziaz.

Alde txarrei dagokienez, azpimarratuko nuke instituzioen aldetik, gauzak gero eta konplexuago bihurtzen ari direla, beharrezko paperak, baimenak... gero eta gehiago baitira.

2. Testuinguru honetan nola dago hazien gaia edo afera?

Afera gaizki dago: bertako gero eta hazi gutiago mantentzen dira. Gaur egun, lan hori enpresen esku utzi dugu. Gainera, transgenikoen erabileraren ondorioz, hazi gehienak nahasten ari dira, barietateak galduz.

3. Ba al da gure eskualdean hazien elkarterik?

Duela hamar urte inguru Baztan Bidasoan hazi sarea sortu genuen, baina duela urte pare bat proiektua bertan behera gelditu zen. Nik dakidanez, Bortziriak mailan sareak martxan segitzen du. Sarea gure inguruko haziak mantentzeko eta banatzeko helburuarekin sortu zen.



4. Zein izan da elkartearen ibilbidea eta gaur egungo egoera?

Hasieran, urtean behin, hazien eguna antolatzen hasi ginen, urtero herri ezberdin batean (Zubieta, Oronoz, Elizondo, Erratzu, Gartzain, Bera,...). Hazien trukaketak, solasaldiak eta bertako produktuen dastaketak... antolatzen genituen. Horretaz gain, web orrialde bat sortu genuen, non jendeak sortutako hazi bankuaren informazioa kontsulta zezakeen. Pixkanaka, leku fisiko bat izan beharraz konturatu ginen, eta Barraskilo elkarte sortzea erabaki genuen hiru helburu nagusirekin:

1. Bertako hazi-bankua sortzea.
2. Ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko harremana lotzea, bertako produktuak salduz.
3. Nekazaritza ekologikoaren inguruko formakuntza sustatzea, kurtsoen antolakuntzaren bidez.

Gaur egun, nahiz eta hazien eguna antolatzen segitzen dugun, elkartearen proiektua ez dago martxan. Hala ere, ni beti prest nago hazien trukaketak egiteko, bertako barietateak mantentzeko.

5. Elkartearen jardunaren barrenean hazien eguna ospatzen zenuten.

Zenbat urtez ospatu da? 2020an egingen al duzue?

Aurten, aurreko urteetan sortutako dinamika dela eta, Baztan mailan hazien eguna ez antolatzea erabaki genuen. Nahiz eta haziak hartzeko aukera ematen dugun, jendeari konpromiso bat eskatzen diogu. Helburua litzateke ondorengo urtean hartutako hazien bikoitza ekartzea bankua handitzen joateko, baina gutxitan betetzen zen. Une honetan, bertze dinamika baten bila gabiltza jendeari barietateak hurbildu ahal izateko, baina oraindik ez dugu garbi aukera hoberena zein den.

6. Zure ustez, gure arbasoek haziei garrantzi handiagoa ematen al zieten?

Zergatik aldatu da?

Bai noski, beraien elikadura bermatu behar zuten, biziraupena eta etorkizuna hortik baitzetozen, haiek ez zuten haziak erosteko aukerarik. Orain, kapitalismo eta kontsumismoaren dinamikan murgilduta bizi gara: lana egin, dirua irabazi eta beharrezko gauza eta zerbitzuak erosten ditugu. Horrela jakintza aunitz galdu ditugu...

7. Gure eskualdean eguraldia dela, kokapen geografikoa dela, eta bertze hainbat osagarri edo berezitasun direla eta, zeintzuk izanen lirateke gure nekazaritzak dituen altxorrik preziatuenak: tomatea, banabarra...?

Guztiak, bakoitzak bere garrantzia dauka, eta guztiak zaindu beharrekoak dira.

8. Zer aholku emanen zenioke edozein nekazariri: haziak zaintzeko edo norberak haziak etxean egiteko?

Hasteko eta behin, informazioa bilatzea aholkatuko nioke. Funtsezkoa da ulertzea nola funtzionatzen duen hazien polinizazio-prozesuak, barietateak ez nahasteko. Behin hori ulertuta, pazientzia eta gogoia dira osagairik hoberenak.

9. Laburtu esaldi batez zuretzat zer den hazien altxorra ongi zaintzea.

Benetako burujabetza: askatasuna eta autogestioa lortu nahi baditugu, haziak zein naturarekiko harremana berreskuratu behar dugu.



LAN eta LAN

Ruthi egindako elkarrizketan, **poliki-poliki** eta **pixkanaka-pixkanaka** hitz-bikoteak atera dira. Lanketa honetan, errepikapen mota horiek, errepikapenak, oro har, zer diren eta zenbat kasu diren landu behar dugu.

Zer dira?

Euskaraz, hitz edo esapide baten esangura azpimarratzeko, maiz, errepikatu egiten da. Gehienetan, nahikoa da azpimarratu edo indartu nahi den hitza errepikatzea, bertzerik gabe. Horrelakoetan, errepikatutako hitzak marratxo batez lotzen dira.

Baliabide edo era guztietako hitzekin erabili daiteke: izenondoekin (**txiki-txikia, lodi-lo-dia...**), izenlagunekin (**bat-bateko, behar-beharrezko...**), adizlagunekin (**bihotz-bihotzez...**), aditzekin (**ibilian-ibilian, konponduz-konponduz...**), zenbatzaileekin (**banan-banan, gutxi-gutxi...**) eta aditzondoekin (**poliki-poliki...**).

Oraingo honetan, azkeneko horiei erreparatuko diegu arretaz.

ADITZONDOEKIN: poliki-poliki, pixkanaka-pixkanaka, astiro-astiro...

Normalean, aditzondoak oso-osorik errepikatzen dira:

Astiro-astiro etorri gara. **Hortxe-hortxe** ibiliko da. **Ozta-ozta** irabazi dugu.

Zenbaitetan, -(R)IK atzizkiaz osatutako aditzondoek kasuan esaterako, atzizkia ez da errepikatzen:

Poz-pozik joan ziren. Tarta **oso-osorik** janen dut. **Bakar-bakarrik** egin du dena.

Hala ere, zenbait esapide eginetan atzizki eta guzti errepikatzen da. Adibidez:

Apurka-apurka gauzak konpontzen doaz. **Pixkanaka-pixkanaka** gaudituko dugu.

Esaldi hauetako errepikapenak kendu eta behean jarri ditugu; ea poliki-poliki parekatzen dituzun!

- 1.- Koldo ____1____ erori da eskaileratan behera
- 2.- Pelikula hori ____2____ ikusi dugulakoan nago.
- 3.- N-121 errepidean ____3____ ibili behar izaten da.
- 4.- Zenbat izanen ginen martxoaren 8ko manifestazioan, 2000? ____4____ ibiliko ginen.
- 5.- Gure herriko futbol taldeak ____5____ irabazi zuen.
- 6.- Eskualdeko ekonomia ____6____ hobetzen doa.
- 7.- Gure eskolako irakasleekin ____7____ da ezer egitea.
- 8.- Koronabirusaren hedapena ____8____ moteltzen ari da.

a.- ozta-ozta b.- pixkanaka-pixkanaka c.- ia-ia d.- astiro-astiro
e.- inoiz-inoiz f.- apurka-apurka g.- hortxe-hortxe h.- alfer-alferrik



BITXILOREAK



Ruthek ederki azaldu digu *Bidasoko Haziak* izeneko taldearen nondik norakoak. Gaur egun, taldea geldirik egon arren, lehen, eskualde mailan egiten zuten lan. Horren harira, aipatu nahiko genuke bertze talde batzuk eskala handiagoan aritzen direla, errate baterako: *Euskal Herriko Hazien Sarea, Asturiaseko Hazi Sarea, Association Kokopelli, Resembrando e Inter-cambiando...* Eta testu honetan ardatz izanen dugun honako hau: Norvegiako Svalbard uharteko Munduko Hazien Kripta. Dena dela, testua ongi konprenitu nahi baduzu, falta diren aditzetan nominalizazio kasu egokia erabili beharko duzu. Zorte on!

ERNE SARIRAKO!

- | | | | | |
|---|--|--|--|---|
| 1. a) izatea
b) izaten
c) izatera | 4. a) hasi
b) hastera
c) hasteko | 7. a) eusten
b) eustea
c) eutsi | 10. a) gordetzeak
b) gordetzeari
c) gordetzeko | 13. a) erostea
b) erosi
c) erosten |
| 2. a) gordetzen
b) gordetzeko
c) gordetze | 5. a) pasatzen
b) pasatu
c) pasatzea | 8. a) izaten
b) izateko
c) izan | 11. a) galdu
b) galtzen
c) galdutzen | 14. a) pobretzea
b) pobretzeak
c) pobretzen |
| 3. a) izateak
b) izatea
c) izatera | 6. a) ailegatzeko
b) ailegatzera
c) ailegatzea | 9. a) ordezkatu
b) ordezkatzera
c) ordezkutzen | 12. a) erostea
b) erosten
c) erosteak | 15. a) aberastu
b) aberasteko
c) aberasten |

Ipar polotik hurbil dagoen kripta horren xedea hazien gordailua(1)..... da; hau da, munduko haziak(2)..... leku seguru bat(3)..... Baina beharrezkoa al da horrelako leku bat? Ba, beno, gure planetak bizi dituen aldaketa klimatiko, gerrate, izurrite, hazien monopolio eta bertzelako prozesu kaltegarriak ikusita, neurri zentzuduntzat har daiteke. Izan ere, hondamendiren bat gertatuko balitz eta haziak galduko balira, nolabait, nekazaritzarekin, berriz ere(4)..... bidea bermatuko luke Norvegiako hazi-gordailu horrek.

Kripta mendi baten barrenean eraikia dago, eta 125 metroko tunel bat(5)..... behar da harat(6)..... Hala, korridore luzearen bertzaldean, 4'5 milioi hazi-lagin gordordetzeko lekua duen biltegi batekin eginen dugu topo (2008an inauguratu zutelarik, mundu osoko 100 milioi hazi zeuden bertan). Modu horretan, nekazaritzan erabiltzen diren landare-espezieen aniztasunari(7)..... nahi zaio.

Landare-aniztasuna aberastasuna da; aniztasuna behar dugu mundu osasuntsu eta orekatua(8)....., baina, zoritxarrez, joera kontrakoa da: lekuan lekuko haziak kanpokoengatik(9)..... ari gara poliki-poliki. Etxeko baratzeei dagokionez, egun, ia ez dugu landararik egiten etxean, zuzenean dendan erosten ditugu, eta gauza bera gertatzen da haziekin. Haziak(10)..... ohitura(11)..... ari gara: badirudi erosoagoa dela dendan(12)..... Bertzalde, nekazaritza industrialari dagokionez, horretan ere antzera ibilki dira: haziak(13)..... behar izaten dituzte.

Haziak bizitza ere badira: hazirik gabe, ez dago landararik, ez dago barazki eta frutarik, eta, hondarrean, ez dago janaririk. Horregatik da hain preziatua eta balioetsua beren merkatua. Eta horregatik daude AEBetako Monsanto edota Alemaniako Bayer bezalako multinazional erraldoiak hazien negozioaren buruan, ikaragarritzko etekinak lortzen baitituzte bizitzaren elementurik oinarritzkoenak, haziak, manipulatu, monopolizatu eta patentatu. Beren onura ekonomikoaz, nekazarien eta lurra beraren(14)..... ekartzen dute. Hortaz, txalo bero bat Bidasoko Haziak bezalako egitasmoei; eutsi diezaiegun bertako haziei eta(15)..... gaitezen aniztasuna mantenduz.



JOLAS-NAHAS

HITZ GURUTZATUAK


Ruthekin ikasitako hiztegi pixka bat landuko dugu ariketa honetan. Joko modura, ematen zaizkizuen definizioen hitzez osatu beharko duzue ondoko taulatxoak. Zorte on!

EZKERRETIK ESQUINERAT

6. Genetikoki eraldatutako organismoak erabiliz ekoiztako elikagaia.
7. Berriz ere zerbait eskuratzeko akzioa.
8. Landare loreduen fruituaren zati, espezie bereko landare berri bat sor dezakeena.
10. Lurzati berean, landareak txandatzea.

GOITITIK BEHEITI

1. Komunitateek eta herrialdeek beren nekazaritza, labore, arrantza, janari eta lurralde politika propioak definitzeko eskubidea; beren buruaren jabe izateko eskubidea.
2. Landareak polenarekin ernaltzeko ematen den prozesua.
3. Zerbait ekoizten duen pertsona.
4. Produktu bat kontsumitzen duen pertsona.
5. Dirurik erabili gabe ondasun material bat beste batekin aldatzea.
9. Adarrari txertatzen zaion begi edo ziria.



ERANTZUNAK



LAN eta LAN (4. or.):

1- c; 2- e; 3- d; 4- g; 5- a; 6- f; 7- h; 8- b

JOLAS-NAHAS – Hitz Gurutzatuak (6. or.):

1- BURUJABETZA; 2- POLINIZAZIO; 3- EKOIZLE; 4- KONTSUMITZAILE; 5- TRUKAKETA;
6- TRANSGENIKO; 7- BERRESKURATU; 8- HAZI; 9- TXERTO; 10- ERROTAZIO

166. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- C, 2- J, 3- I, 4- E, 5- H, 6- A, 7- D, 8- F, 9- G, 10- B

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **5. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.

166. aleko SARIA:

**Lesakako BEKO mintegian
60 euroko erosketa**

166. aleko irabazlea:

**Mirari Mariezkurrena
Sunbillakoa**

ETXETIK PLAZARA liburua DEBALDE!!

**Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan**



OHARRA: erantzunak apilaren 22a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK (5. OR.):

1 - _____	6 - _____	11 - _____
2 - _____	7 - _____	12 - _____
3 - _____	8 - _____	13 - _____
4 - _____	9 - _____	14 - _____
5 - _____	10 - _____	15 - _____

EP 167 (2020/04)



POEMARIA

Eta jendea etxean geratu zen.
Eta irakurtzen zuen eta ondokoari adi egoten zen.
Eta atsedean hartu, eta ariketak egiten zituen.
Eta artea sortu zuen, eta jostetan aritu.
Eta izateko modu berriak ikasi.
eta gelditu egin zen.

Eta sakonago entzun zuen...
Baten bat gogoetan aritzen zen,
Beste batzuk otoitzean.
Beste baten bat dantzan...
Batzuek beren itzalarekin egin zuten topo.
Eta beste modu batean hasi ziren pentsatzen.

Eta jendea sendatu egin zen.
Eta ezjakintasunean, arriskuan
eta zentzurik gabe eta bihotzik gabe
bizi zirenak falta zirela,
lurra ere hasi zen bere onera etortzen.

Eta arriskua bukatu
eta pertsonak berriz elkartu zirenean,
negar egin zuten hildakoengatik,
Eta erabaki berriak hartu zituzten.
Eta etorkizun berriak amestu.
Eta bizimodu berriak sortu.
Eta lurra erabat sendatu
Haiek sendatu ziren bezalaxe.

1800eko izurritean idatzitako poema.
(Kitty O'Mearry. 1839-1888)
Itzulpena: Fernando Rey

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

